

Ireki da Oiartzunen kamioentzako aparkaleku segurua eta babestua



Europatik datozen eta hegoalderantz, Estatura, Portugalera eta Afrikako iparraldera doazen trafikoei zerbitzua emango die

Bidegi Foru Sozietateak amaitutzat eman ditu Oiartzungo obrak, eta azaroak 15etik aurrera, espazio birgaitu berriak barrera altxatua du bere instalazioetan garraiolariak hartzeko.

Oiartzungo aparkaleku horretan, garraiolariak 184 plaza izango dituzte beren ibilgailu eta salgaientzat, 16.220m²-ko azalera batean banatuta. Espazioak 29 plaza ditu salgai arriskutsuentzat; horietatik 12 sukoientzat dira eta 17 ez-sukoientzat. Ereku horrek likidoak biltzeko sistema propioa eta dekantazio-biltegia ditu. Hotz-garraioek entxufeak dituzten 18 plaza espezifiko dituzte sare elektrikoarekin konektatzeko, eta konexiorik gabeko beste 18 plaza eremu berean. Horrela, gune bakar batean kokatzen dira etengabeko hozte-funtzionamendua behar duten garraioak, eta haien funtzionamenduak sortzen duen zarata urruntzen da, atsedenaldi hobea bermatuz.

Lehenengo ordua doakoa izango da mota guztietako ibilgailu astunentzat, eta bigarren ordutik aurrera 4,70 €-ko kostua izango du. Tarifak garraio motaren arabera aldatuko dira. Hala, salgai ez-arriskutsuak garraiatzen dituen garraio batek 28,70 euro ordainduko ditu 24 orduko egonaldi batengatik, eta salgai arriskutsuak dituen ibilgailu batek, ADR (Salgai Arriskutsuen Nazioarteko Errepide Garraioa Arautzen duen Europako Akordioa) kalifikazioa duenak, 33,50 euro ordainduko ditu. 48 orduz aparkatzen dutenei



orduko kostua 1,16 euro eta 1,50 euro kobratuko zaie, hurrenez hurren. Aparkalekua txandakakoa da.

Aparkalekuak eskalatzearen aurkako itxitura perimetral bat du: 600 metroko luzerako hesi bat eta 100 metroko hormigoizko beste bat. Biek 2,5 metroko garaiera dute, eta Urrezko mailarako eskatzen diren parametroak betetzen dituzte, zeinek 1,8 metroko gutxieneko garaiera zehazten baitute. Barruan bi modulu daude: bata konketak eta ikuztegia dituena, eta bestea konketak eta dutxak dituena. Esparruak zaintza-kamerak ere baditu, azalera osoa monitorizatzen dutenak, megafonia, sistema elektrogenoa, argiztapena eta sarrera eta irteeren kontrola dagoen zerbitzu-erakinera doazen gidariarentzat. Jatetxea, denda, konketak eta dutxak dituzte bertan.

Aire zabalean aisialdia, ariketa eta atsedena errazteko, barruko perimetro osoan errei berde bat dago ibiltzeko edo korrika egiteko, eta gun e bat, parke publikoetan ariketa fisikoa egiteko izaten diren elementu finkoekin.

Bidegi 4,3 milioi euro inbertitu ditu, gehi BEZa, eta horietatik 3,3 milioi lehendik zeuden bi plataformak bakar bat bihurtzeko obrak izan dira. Jarduketari esker, kanpoaldean zerbitzugunean geratzen diren 11 autokarrentzako azalera bat sustatu ahal izan da. Beste milioi bat super-egitura delakora bideratu da. Honako hauek biltzen ditu: segurtasun-sistema, bideozaintzako instalazioak, suteen aurkako ur-hartuneen sarea, megafonia, wi-fia, argiztapena eta sare orokorretik korrontea eroriz gero autonomia energetikoa bermatzen duen multzo elektrogenoa.

Astigarraga-Oiartzun Garraioaren Zentro Integraleko Oiartzungo aparkaleku berriaren azken helburua Europako ardatz atlantikoko garraio-azpiegitura hobetzen eta zaintzen laguntzea da, aparkaleku seguruak eta gidariarentzat, ibilgailuarentzat eta salgaiarentzat babestuak eskainiz. Garraio adimenduneko sistemei lotuta dago. Sistema horietan, garraiolariak eta ibilgailu astunek aparkaleku egokiak eta seguruak dituzte, atsedenerako zerbitzu eta instalazio modernoekin konbinatuta.

Izen bereko zerbitzugunean dago, 8,000 kilometro puntuan, Irun Barrerako ordainlekua gurutzatu eta berehala, Donostiarako norabidean, azpiegitura berriak Europatik hegoalderantz, Portugaleterantz eta Afrika iparralderantz doazen trafikoei emango die zerbitzua. Errodaje edo martxa zuriko aldi irekiko da, zerbitzu guztiek behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatzeko eta Urrezko kalitatea homologatzeko izapideak egiteko. Abenduaren hasieran, Astigarragako aparkalekuaren txanda izango da.

Fase horrek urte amaierara arte iraungo du, eta 2022ko urtarrilaren 1ean 8 urterako emakida hasiko da. «CIT Autopista 8, SA» enpresa izango da CIT Oiartzun - Astigarraga kontserbatzeko, mantentzeko eta ustiatzeko emakidaduna, eta enpresa horrek kudeatuko du, «TRUCK mowiz» enpresaren bitartez.

Abierto en Oiartzun el aparcamiento seguro y protegido para camiones



Dará servicio a los tráficos que provenientes de Europa circulan en sentido sur hacia los diferentes puntos del Estado, Portugal y Norte de Africa

La Sociedad Foral Bidegi ha dado por finalizadas las obras del CIT de Oiartzun y ha anunciado que desde hoy, 15 de noviembre, el recién rehabilitado espacio de Oiartzun levantará su barrera para recibir en sus instalaciones a los transportistas que quieran utilizar el centro.

En este aparcamiento de Oiartzun los transportistas van a tener a su disposición 184 plazas para sus vehículos y mercancías distribuidas en una superficie de 16.220m². El espacio cuenta con 29 plazas para mercancías peligrosas de las cuales 12 se destinan a inflamables y 17 a no inflamables. Esta área dispone de sistema propio de recogida de líquidos y depósito de decantación. Los transportes frigoríficos cuentan con 18 plazas específicas con enchufes para conectar a la red eléctrica y otras 18 sin conexión en la misma zona. De este modo se ubican en una única zona los transportes que requieren de un funcionamiento continuo de refrigeración y alejan el ruido que generan su funcionamiento garantizando un mejor descanso.



La primera hora será gratuita para todo tipo de vehículos pesados y a partir de la segunda tendrá un coste de 4,70€. Las tarifas variarán en función del tipo de transporte. Así, un transporte con mercancías no peligrosas abonará 28,70€ por una estancia de 24h mientras un vehículo con mercancía peligrosa, con la calificación ADR (Acuerdo europeo que regula el transporte internacional de mercancías peligrosas por carretera) abonará 33,50€. Para los que estacionen durante 48 horas el coste por hora les saldrá por 1,16€ y 1,50€ respectivamente. El parking es de rotación.

El aparcamiento dispone de un cierre perimetral anti-escalada mediante un vallado de 600 metros de longitud y otro de hormigón de 100 metros. Los dos con una altura de 2,5 metros que cumplen los parámetros exigidos para el nivel Oro que determina una altura mínima de 1,8 metros. En su interior hay dos módulos, uno con lavabos y lavandería y otro con lavabos y duchas. El recinto cuenta también con cámaras de vigilancia monitorizando toda la superficie, megafonía, sistema eléctrico, iluminación y un control de entradas y salidas para los conductores que se desplacen al edificio de servicios existente. Aquí disponen de restaurante, tienda, lavabos y duchas.

Al objeto de facilitar el esparcimiento, el ejercicio y el descanso al aire libre todo el perímetro interior cuenta con un carril verde para caminar o correr y una zona con elementos fijos similares a los existentes en los parques públicos para ejercicios físicos.

En su ejecución Bidegi ha invertido 4,3 millones de euros+IVA de los cuales 3,3 millones han correspondido a las obras para conformar en una única plataforma las dos existentes anteriormente. La actuación ha posibilitado promover en su exterior una superficie para 11 autocares que en su tránsito se detengan en el área de servicio. Otro millón se ha destinado a la denominada super-estructura que comprende el sistema de seguridad, instalaciones de video-vigilancia, red de hidrantes anti-incendios, megafonía, wi-fi, iluminación y grupo eléctrico que garantiza autonomía energética en caso de caída de corriente de la red general.

El fin último del nuevo aparcamiento de Oiartzun del Centro Integral del Transporte- Astigarraga-Oiartzun no es otro que contribuir a la mejora y salvaguarda de la infraestructura de transporte en el eje atlántico europeo, ofreciendo zonas de aparcamiento seguras y protegidas para el conductor, el vehículo y la mercancía. Está conectada con los Sistemas de Transporte Inteligente (ITS), en las que los transportistas y sus vehículos pesados cuentan con zonas de aparcamiento adecuadas y seguras combinadas con modernos servicios e instalaciones de descanso.

Situado en el área de servicio del mismo nombre en el pk 8,000, nada más cruzar el peaje de Irun Barrera, sentido Donostia-San Sebastián, la nueva infraestructura dará servicio a los tráficos que provenientes de Europa circulan en sentido Sur hacia los diferentes puntos del Estado, Portugal y Norte de Africa. La apertura se realiza en período de rodaje o marcha blanca para comprobar el correcto funcionamiento de todos



los servicios y proceder a los trámites de homologación de la calidad Oro. A primeros de diciembre le seguirá el aparcamiento de Astigarraga.

Esta fase se mantendrá hasta finales de año y el 1 de enero de 2022 comenzará la concesión por 8 años. La concesionaria de la conservación, mantenimiento y explotación del CIT Oiartzun - Astigarraga será la empresa "CIT Autopista 8, S.A." quien la gestionará por medio de la firma "mowiz TRUCK".

Zarautz, 2021-11- 15